


**ZER**  
**ALDIZKARIA**

410n. zenbakia  
2014 GABONILLA

**Bizkaitarrei  
Bizkaieraz**



[www.euskerazaleak.biz](http://www.euskerazaleak.biz) • [info.euskerazaleak@gmail.com](mailto:info.euskerazaleak@gmail.com)

# ZORION ETA URTE BARRI ON



Zubikarai eta Bedialauneta'tar Augustin  
jaio zantetik, bere 100 urte betetzean  
gogoratzen

# Euskalerrian euskeraz EUSKERA ZALEAK

## 2014-2015 IKASTURTEA

### BIZKAIERAZ 47. IKASTAROA IRU MAILLA

Egunak: astelen eta eguasten  
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz eta arratsalde

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2  
urrutizkiña 94 423 53 22  
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 13an

### 47. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES

Días: lunes y miércoles  
o martes y jueves

Horas: Mañana y tarde

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2  
Teléfono 94 423 53 22  
Bilbao 48001

Comienzo: 13 de octubre

## ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:

**EUSKERA ZALEAK**  
**BILBAO BIZKAIA KUTXA**  
**ES28 2095 0000 74 2000089615**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera erobatan lagundu eiguazu!**

**Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 30 €.**

**Ez dozu ezer be idatzi bear.**

**Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.**

**Eskerrik asko!**

## Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85



# Zubikarai eta Bediauneta´tar Augustin jaio zanetik, bere 100 urte betetzean gogoratzen



1.914´ko Azilla´ren 3´tik – 2.004´ko Uztailla´ren 12´rarte -2.014´ko Azilla´ren 3´an

Euskerazaleak Alkartearen erakundeak omenez, Augustin´eri oroipengarri lez egiten dautson idazlan onen arrazoi nagusia: Augustinen Euskal-zintzotasunezko semetasun ta euskal aberriagaitik eukan ardura betea, gure gaurko belaunaldi edo gaztetasunari aurkeztea da, alako ERRALDOI irudiak bear doguzelako gure gazteen artean, jakin degien, EURAK izan ba zirela, gure gaurko GAZTEAK be, al izan leikezala, gure Euskalerrri maite oneri, espainol lokatzarteakaz daukazan korapilloetatik, askatasunezko argitasunera atara dagian, eta Iparagirrek esaten eban lez: “bizi onetan, Jainkoaren askatasunezko ERRILEGEAN emankorra izan edin”. Askatasunezko nortasunean aundiagokoak izan ezkeru, alkartasun aundiagoak lortzen diralako.

## SARRERA.

Lourdes nire emaztea eta ni, Galdakoko gaisotegira joan gintzazan Bilbao ta Badiola´tar Ibon larru osagillearengana, eta bera Ondarrutar-lez aurkeztu zanean, nik Augustin izeneko lagun aundi bat euki nebala Ondarrun esan neutson, eta Lourdesek, ezagutzen ete eban itandu eutsonean, berak: “itaun ori ez zala egin bear era ortan, alderantziz baiño esan eutson”, itauna: “ia baten bat baegoan Ondarrun, Augustin ez ebana ezagutzen”.

1.978-9ko urte artean ezagutu neban Augustin, Aita Santi Onaindiagaz asi ta gero, eta biekaz ibilita, ondo ezagututako gizona izan zala Euskalerrriko zazpi lurraldeetan konturatu nintzan, bere idazlan ta antzerkiak, ezagutzen ez ziran azkeneko lekuraiño eltzen ziralako.

Lagun artean zirikalari zorrotzak izan arren, berba motz eta benaz edo ziñezko gizonak izan ziran edozein arazo baten aurrean, eurakaz ni

uste osoan agertuta beti, maisu ta guraso lez euki nebazalako.

Eusko Alderdi Jeltzalezkoak izan ziran beti, euren uste edo eritzizko Euskalerrrian, ez ebelako onartzen alderdikieririk, Euskal-Etxe Nagusiari begira nortasun aundiko neurrian, seme-alabaren askatasunezko demokraziaren zintzotasuna baiño ez ebelako eskatzen.

Gure Euskal askatasunezko demokraziaren izatezko aberritasunlako baten, ez ebelako ulertzen alderdikieririk, eta benetan diñotsuet oso minduta geratzen zirala, aldikada baten gure artean sarri agertzen ziran banaketakaz.

Augustiñek ziur nago, bere bizitzaren benetako eskeintza egin eutsela Jainko, etxe txiki ta etxe nagusiari, orrein maitasun-gar bagerik bestela, ezin dalako ulertu, bere aiñ ugaritasunezko euskal lana.

Gure artean berbetan egoten giñela, bereala igeritzen jakon euskerea amalez, maite eukela.

## ZUBIKARAI eta BEDIALAUNETA´tar AUGUSTINEN AURKEZPENA.

Ondarroa´n jaio zan Zubikarai eta Bedialauneta´tar Augustin, Zubukarai´tar Salvador arotza ta Bedialauneta´tar Ana bere gurasoen bidez, bederatzai anai-arrebaren artean irugarrena zana.

Gurutzeko Alaba lekaimeen eskolan egin ebazan bere lenengo ikasketak.

11 urtetik 15´erañokoak, Saturrarango Abadegai Seminarioan.


Beste urte bete egin eban Gasteiz´eko apaiz-gaitegian, etxetik ikasita gaisotu zanean, eta zoritxarreko inguru onen ondorioz, apaiz izateko gogoak oztuta, filosofi edo eraman onaren lenengo urtean baztertu ebazan ikasketara orreik.

Ondarruko Luistarren zuzendari ipini eben Augustin, gazteen artean sinismen eta abertzaletasunezko zentzunean, mailla aundiko neurrian lan eginda.

1.864´ko urtean jaiota, 1.920´ko urtean il jakun Ondarruko seme Agirre´tar Txomin, Bizkai´tar apaiz idazle ta abertzale aundia, Augustiñek sei urte eukezala, eta balekite apaiztegian egon zanean, Txomiñen “KRESALA” liburulakoak gazterik itzartu ebela euskal idazlanetara, gero Orixe artuta maisu lez.

1.933´ko urtean, “Zornotza´ko Jaungiko Zale” illeroko aldizkarian eta “Ekin”eko astekarian bere lenengo saiokaz asiko zan lan egiten, baiña barrero makalduta, bere etxetik egingo zituzen urrengo idaz lanak urte bi aldiz.

1.933´ko urtetik aurrera, alde batetik antziñeko politikaren guda aldietako bildurragaitik etorten ziralako oztonduteko ez izen orreik, eta bestetik or-



duko egoera politikoak alan be artzen ebazalako, asi zan idazten ordezko izen oneikaz, guda aurretik: “Amezti”, “Arteta”, “Gurutz”, “Itxas-ertz”, “Zubegi”, “Kutuntxu de Arribai”, “Ibai Ondo”, “Ondarzubí”, eta abar, “Ekin”, “Euzkadi”, “Euzko”, “Gudari”, “Argia”, ta abarreko aldizkarietan.

1.934´ko urtean eta 20 urte zituzenean, len aldiz erakutsiko eban Augustiñek bere lenengo “Aberrijagaz Bizi”koaren antzerki lanagaz, euken idaz zaletasuna eta griña, Euskadi aldizkarian argitaratuta. Aldizkari orretan 38 antzerkiko izen buru argitaratuz 1.987´ko urterarte. Bertarako be, ainbat gazteleharako lan eginda.

1.936ko urtean sortu zan espainako guda, eta frankotarrak urreratu ziranean, Augustiñek iges egin bear izan eban Iparraldera, eta or bertan egoala Eskualduna astekarirako idazlan batzuk eginda, bilbora joan zan laster, “Euzkadi” aldizkarirako lan egiten.

1.937ko Urtarrilla´ren 1´etik asita, urte bereko Bagilla´ren 19´rarte, Ziarsolo ta Abeletxe´tar Manu´k bere euskerazko aldizkari barri baten asmamenakin Augustiñengana joanda, euskera utsean egingo eben egunkari barri “Eguna”n lan egin eban zuzendari orde lez, Erkiaga´tar Eusebio, Arizmendiarrrieta´tar Jose Mari, eta Mendizabal´tar Alex laguntzailleakaz, Ziarsolo ta Abeletxe´tarren zuzendaritzapean.

Bilbo galdu ondoren, Zalla ta Karrantzako noragabeko bideetatik ibilita, Santanderreko Santoña´n eta Asturias´eko aldetik ibili zan “Aralar”eko batalloi taldearen gudari lez, Laredora itzuli eta bertan baitu arte.

Baitu ondoren, Duero´ko Arandan, Kastro, Ebro´ko Miranda´n, Nafarroa´ko Oteiza de la Solana´ko batzangotasunezko zelaietatik zigorrezko lanetan ibili ondoren, Guadalajara´ren Mirabueno´ko gudadokietan, 64´n batalloi langille lez ibilita, Katalunian agertu ziran.

1.939´ko urtean Urtarrilla´ren 4´an Zaragozan egoanean, Eguna´ko idazle zan lez, estu artu eban epaitegietan eta egun batzuk Azpeitia ta Donostia´ko espeetxetan ibili ondoren,

español´tar 9 izparkarien truke, 9 euskal izparkari askatuko ebezan, artean Augustin egoala, eta an askatuta Bartzelonan babesteko muga aldatu bear izan eban lez, an egon zirala egun batzuen baimena artuta, Bartzelona galdu zan, eurak lenengo Endaia, Ziburu´n, eta gero Landes´etako Labenne´tik ibilita.

Frantzeztarrak zoritxarrez, Alemaniak sortutako gerratean sartu bear izan eben, eta Augustin bere lagunakaz, Lannemezan eta Tarbes´eko iskillotegietan lan egin bear izan eben, arik eta Alemanak sartu arte.

Etixerako ustetan urten eban Augustiñek Frantzitik, eta Frankoren ertzain izkutukoak arrapatuta, lenengo Figeras´eko espetxean eta gero zigorpeko batalloi baten Jibraltarren aurreko “Las Inbiernas”etara bialdu eben zigortuta.

1.941´eko urtean etxerau zan Augustin, ez berak, lagunen arteko txantxetan, igarotako gertakizun orregaitik: “1.936´ko urtearen udako gau baten, etxetik aste baterako izango zalakoan urten, eta 1.941´eko negu gordiñean etxeratu nintzan”, esan barik.

1.941´eko urtean etxeratuta egoala, Mutriku´ko altxa-arraina´ren<sup>(1)</sup> Arruti´ko lantegitik deia artuta, lantegiko idazkaritzan lan egiteko onartu ebenagaz, bertan bete egin ebazan urrengo berrogeitabi urteak, arik eta zar saritu zan arte.

1.942´ko urtearen Urrilla´n ezkondu zan Ea´ko Erkiaga ta Aldamiz´tar Maria´gaz. Sei seme-alaba eder euki zituzen, Jose Augustin Deia´ko egunkarian lan egiten ebana, Joan Antón, Alejandro, Beatriz Ondarrun andereño dana, eta Maria Jesús Markiñan, Jabier´egaz osotuta euskal kabi eder ori.

Maria ta Augustiñek sendiko bizitzari ondoen erantzuteko, Mutriku´ko Arruti lantegi ta euren etxeke dendaren ardurak ondo eroanda lortu eben.

Augustiñek emendik aurrera, iru zatitan bananduko eban bere bizitza: sendiaren bizitza gure euskaltasunezko nortasunean

(1) *Altxa-arraina´ren Arruti´ko lantegitik = fábrica de coserva de pescado de Arruti.*



sendotzeko; Arruti´ko altxa-arraina´ren lantegian lan eginda sendia aurrera atarateko; eta euskal-seme



zintzo-lez, Euskalerraren espainol menpetasuna gure lepo gaiñetik kentzearren, al eben arlo guztietan biotzezko maitetasun guztiagaz, etenbageko idaz lan bikaiña egiñaz.

Erria eukan iturri Augustin´ek, eta erriak oraindiño daukazan eragozpenetatik artzen ebazan barriakaz maisutu<sup>(2)</sup> zan neurriko mailla aundiñean, eta ardurazko neurri orreitan eskaiñi eutsen Augustiñek: Sendi, Euskalerrita Jaungoikua´ri, bere bizitzazko eginkizun guztiak.

Guda ostetik Augustin´ek ibili zituzen ordezeko izenak: “Z´tar A”, “Zubegi”, ta “Ondar-zubi”ko izen ordeak izan ziran. “Karmel”, “Zeruko Argia”, “Egan”, “Redención”, “Olerti”, “Deia”, “Diario Vasco”, “ZER”, “Euskerazaintza ta abarreko aldizkarietan idazteko.

(2) *Bera maisutu = auto didacta.*



1.945'eko urtean "ITSASORA" argitaratu eban, Biarritz'eko Euskal Lore jokoetan saritua izan zana.

1.950'tik 1.965'eko urte bitartean, Ondarrun ataraten zan "Boga-Boga" aldizkarian be lankide izan zan.

1.956'ko urten "SEASKA INGU-RUAN" argitaratu eban, Donostian saritua izan zana.

1.961'eko urtean, Euskaltzaindiko urgazle izendatu eben.

1.963'ko urtean, "IRU ALABA" argitaratu eban, Toribio Alzaga'ren saria artuta.

1.967'ko urtean, "GIZON ON ETA ANDREA ERRE" argitaratu eban, Gipuzkoa sariketan aipatua izan zana.

1.967'ko urtean jaio zan EUSKERA ERABILTEKO ALKARTASUNA edo Euskerazaleen Alkartea, Oleaga'tar Jesús, Olaizola'tar Jose M<sup>a</sup>, Gonzalez ta Etxegarai'tar Karlos M<sup>a</sup>, Berrojalbiz'tar Julia, Montiano'tar Jose Antonio, Uriarte'tar Kastor, Ezpeleta'tar Jose, Zelaya'tar Adrian, Astiz'tar Migel A., Urkijo'tar Juan Ramon, Erkiaga'tar Eusebio, Zubizarreta'tar Fernando, Martin de Retana'tar Jose M<sup>a</sup>, Zugazaga'tar Leopoldo, Bengoa'tar Jose Luis, eta Atxa'tar Jesús'ekin.

Augustin, nai ta bere ezagun ta lagun guztiak, Bilbon eta Bizkai guztirako aukeratu zan Euskerazaleen zuzendaritzazko batzorde orretan ez egon arren, laster eskaiñi eutsoen bera ta beren lagun aundiak ziran Onaindia'tar Aita Santi, Olazar'tar Martin'ek eta abar, euren laguntza osoa il ziran arte.

1.968'ko urtean, "LURRUNPEAN" argitaratu eban, Gipuzkoa'ko saria artuko ebena.

1.969'ko urtean, "ERREKONDUAN" argitaratu eban, Gipuzkoa'ko saria artuta.

1.969'ko urte berean, "MENDU ZARRAK" argitaratu eban, Toribio Alzaga'ren saria artuta.


1.969'ko urtetik, KONDAIRA edo EDESTIKO 13 liburu argitaratu ebazan "MOTRIKU" erritik asi ta 1.993'ko urtean "ONDARRU" gaz amaituta.

1.977ko Uztaillan agertu zan gure lenengo "ZER" Euskerazaleak Alkartearen illeroko aldizkaria, eta Augustin bertan ez egon arren, 1.977ko Irailla'ren bigarrenengo zenbakian agertzen jaku Ondarru'tar Txomin Agirre'ren buruz egindako idazlan eder bategaz, ortik aurrera, etenbageko lan eginda "ZER" aldizkariarentzat.

1.978'ko urtean, Kardaberazen ondorioz eta izatasun beretik jaioko zan gure EUSKERAZAINTZA, euskerearen eztabaida-ko kezka baten eta berotasunezko bidetik Euskerearen eskubide biziak zaintzeko alegeñean, 1.979'ko Azaroa'ren 23'an Madriletik Erri Zuduzko<sup>(1)</sup> Elkarte lez izendatu zana, eta or egon zan gure Augustin, ainbat gizon aundi ta arduradun artean.

(1) Erri-Zuduzko- Elkarte = de utilidad pública. "ZUDU" = ARRETA, ARDURA.





Berak idatzi eban “EUSKAL SENIK, EZ DAIGUN GALDU”, 1.991 ko Euskerazaintzaren aldizkarian.

Augustin, ainbat denboran izan zan Euskerazaintzaren lendakari ordea.

1.978 ko urtetik 1.986 ko urterarte, IPUI-BERRI edo ELE-BERRI ko zortzi liburu argitaratu ebazan.

Artean: 1.978 ko urtean, “BALE DENBORAK” espain-aterriko aldetik Irizpide edo Kritikako saria artuko ebena.

1.979 ko urtean Bilbao n, Txomin Agirre ren saria Artuko eban “ANTON GUZURRETXE” argitaratu ebenean.

1.980 ko urtean, “LAIÑOAK MUNDAKAN” argitaratu eban, Etxeita ren saria artuta.

1.981 ean, “IRA USAIÑA” Etxeitaren saria artu ebena.

Eta 1.981 eko urte berean, “MONDAKA” argitaratu eban, Etxeita ren bigarren saria artu ebena.

1.981 eko urtean, “ARRANONDO” aldizkariaren zuzendaria izendatu eban, eta ardura ori eroan eban gaisotu zan arte.

1.979 ko urtetik asi ta 1.991 ko urtean amaituta, KONTAKISUNEN sei liburu argitaratu ebazan, Bilbao n 1.979 ko urtean, Azkuen saria artuta “ESAN ETA ESANGO” liburua argitaratu ebanagaitik.

1.983 eko urtean, “MENDI TA ITSASO” argitaratu eban, Markiña ko Lore Jokoetan saritua izan zana.

1.986 ko Jorrailla ren 18 an, Foru Aldundiak omendu eban, saria, Makua tar Jose Mariren eskutik artuta. Ainbat erakunde be bildu ziran Augustin omentzeko, Labayru ko ikastegia urte onetan, eta 1.991 ko urtean Euskadiko IX. Euskal Antzerki Topaketak, eta abar.

1.986 ko urtean, “ARTEA KO ITSUA” argitaratu eban, Foru Aldundiko saria artuta.

Orrez gain Augustiñek, leiaketa askotan bere idazlanak aurkeztu ebazan, irabazikoaren laguntzagaz aurrera giteko.


1.992 ko Urria n eta Azaroa n, ondo merezitako omenaldiak egin eutsotzan Ondarruko erriak Augustin eri, bere izeneko enparantzan, gerritik gorako bere irudia ezarri zabalgun aretan, eta Ondarruko Seme-Bikaiña izendatuta, beren liburuaren erakusketa bat egitegaz.

1.993 ko urtean, “OOREZKO EUSKALTZAIN” izendatu eban Euskaltzindikoak.

1.994 ko urtean, “333 OROIPEN ETA IKUSPEGI” Bilbao n argitaratutako liburua.

Augustine k egindako idazlan guztia- ren laburpen bat eginda, lan kopuru au agertzen jaku: 71 liburu, eta 4.000 idazlan labur, eta kopuru guztitik 25 lan sarituak izan zirenak. 1.995 eko urtean ARANA TA GOIRI TAR SABINO REN azkeneko saria artuta.

## AUGUSTIN ERI BURUZ, ONDORIO LEZ ESAN BEAR DOTENA.





*Kromaño'n arbasoetatik asi eta Paleolítico-Neolítico bitartean lortuta oraindiño gaur odol bizi-bizian daukagun askatasunezko demokrazia-  
ren baita onen bidez, gure Euskalerrri maite onek, biografia edo bizi kondaira askoko gizon aundiak emon dabezala esan bear dot, gure zor eskubideetan izatezko demokrazi onek, asmakizun aundiko sortzailletasunean ezartzen gaitulako.*

*Bereziki azpimarratuak dagozan Agirre'tar Txomin, Loidi, Bilintx, Etxaniz'tar Nemesio, Akesolo'tar Lino, Onaindia'tar Santi, Xalbador, eta ainbat euskalzale abertzaleak aipatzen dauz Augustin'ek, ondo baiño obeto dakielako nolako zorrak daukezan gure erriaren nortasunezko Euskereak eurokin.*

*Euskalerrriak daukan bereiztasunezko baita au baiña, norkerizko alderdikeriaren aurka oso aukera bagekoa izan da, ekialdetik menperatzailletasunezko ekintzan agertu ziran ainbat leiñu Europa'ren mendebal onetara, eta mendebal onetan erromatar kaiser-*



*tzak sortu ziranakin, Europa guzti au menpetasunezko norkeriaren zaletasunean biurtzeko, eta errigizarteak morroitasunean batzangotzeko, bizitzeko bear eben guztia kontroletako alegiñetan ibili arren.*

*Amaibako eskerrak emon bear dautsaguz Jaungoikua'ri ZUBIKARAI ta BEDIAUNETA'tar AUGUSTIN'lako gizonak eukiteagaz, gaur mirari aundia bat dalako Paleolítico-Neolítico bitartean lortu genduzan askatasunaren demokrazizko baitakin aitorlez, gaur gure Euskalerrri maite onetan agertzeagaz.*

*Gure Euskalerrri maite onen giza seme-alabak, bizitzaren eskubideko zor ordezkartzaren ekintzan, munduko giza guztien antzera asmatzailletasunezko almenak bakarrik eukinda, kundeatzaille edo berezko legearen ekanduzko ardura aundi-koak izanez gaiñ, asmakizun orreitan sortzailletasunezko bereztasunean agertzen gara, eta esker aundiak emon bearrean agertzen gara euskaldun guztiak AUGUSTIN'lako gizonari, Euskalerrriak bere edestian lortu dauazan ekanduzko izar bixiak, gaurko eguneraiño ekarteagaz bakarrik.*

*Jaungoikuak bereztutako legeari begira, bereztasunezko ekintza orreitan agertzen dalako benetako maitetasuna Euskal Askatasunezko-Demokraziaren-Nortasunezko-Oitura'gaitik.*

**Agur eta egun aundirarte Augustin.**

**Oar txiki bat.**

Augustin'en liburu guztiak **Euskerazaleak** web orrian daukasuez.

Atutxa'tar Paul

Zornotzan 2014'an Urrilla'ren 24'an





# Amets egin dot

itzak: Agustin Zubikarai  
musika: Gotzon Aulestia

**Lento** 20

*p* A - mets e - gin dot a-mets, li - bre nai-ze-la be - ne - tan, e -  
A - mets e - gin dot a-mets, mi - ñik ez da-la mun-du - an e -

26 *ritar* -----dan -----do-----

ta e-gi-a-ren or-dez, ga-rra-tzez, ez da-la i-nor sar-tu - ten kar-tze-lan.\_\_\_\_  
ta bi-arra-ren neu-rriz i-zer-diz ez da-la i-nor o-ker-tzen gai-xu-an.\_\_\_\_

32 **Movido**

*f* A - mets e-gin dot a - mets, zin - tzo ga-re - la mu-ti - llak\_\_\_\_  
A - mets e-gin dot a - mets, leun-du di-ra - la o-do-lak\_\_\_\_

36

e - ta gu-re - tza - ko ga - rrez, es - ka - rrez, nun-bait e - gon-go di-ra-la bir-gi-  
ta ur, e - rriz e - ta ai - zez, bat ba - tez mu-gak gor-de-ko di-tu-la bi-o-

41 **Lento**

ñak. A - mets e - gin dot a-mets, bi - zi nai-ze-la a-me - tsez -  
tzak

46

bi - zi nai-ze-la a-me - tsez.\_\_\_\_\_

Amets egin dot amets  
libre naizela benetan  
eta egiaren ordezt, garratzez,  
ez dala inor sartuten kartzelan.

Amets egin dot amets  
zintzo garelak mutillak  
eta guretzako garrez, eskarrez,  
nunbait egongo diralako birgiñak.

Amets egin dot amets  
miñik ez dala munduan  
eta biarraren neurritz, izerdiz,  
ez dala inor okertzen gaixuan.

Amets egin dot amets  
leundu diralako odolak  
ta ur, erriz eta aizez, bat batez,  
mugak gordeko ditulako biotzak.

Amets egin dot amets,  
bizi naizela ametsez, bizi naizela ametsez.

# LARRAUNGO UITZI-tik, SAKANAKO ARBIZU-ra ITZAURREA



**T**renean nator, eta esku artean, liburua, Orixeren “EUSKALDUNAK” izenburua duena.

Eta alako batean, aurrez aurre eseri zait gazte bat, eta onela ekin dio:

*“Gaur egun gáindituta dago “poesia” mota ori. Eta or ez du azaltzen benetako Euskalerría. Irudimena besterik ez da. Gizakion problemak, non daude”?*

Zapla...! Eta lasaitu ederra arturik trenetik jaitsiko da, noski.

Orain berrogei urte inguru, zabaldua zegoen aize zurrunbilloaren otsa entzun nuen berriro.

Ni baiño leenago jaitsi da trenetik, eta entzundakoaz, gogoeta azaltzera noa:

Aspalditik gure lur maite onek osatzen duen Euskalerríak, ainbat gertakizun eta eztabaidak, izanak ditu euskaldunon artean.

Orain berrogeita bost urte, inguru, euskeraren batasuna bear zela eta, orduan ere banaketa izan genuen. Eta geroztik ainbat oitura zaar eta sinismen garbi ere, atze xamarrean geldituak dira.

## 1. ATALA.

### Poesi soziala sortu zenekoa.

Leen aipatutako gazte orrek esan didana entzunda, gaur bereziki gogora datorkidana, olerkiaren ingurukoa da. Antxe genituen Lizardi, Lauaxeta, Orixe, Salvatore Mitxelena, eta gerora, Bitoriano Gandiaga, e.a. Ustez, goi xamarrean iritsia zegoen gure euskal olerkia.

Gerora ordea, “Poesi soziala” izenekoa sortu zen. Eta batzuen ustez leengo guztia zaarkitua geldituta zegoen. Eta orren arian, leenengo bururatzen zaidana, idazki batzuen pasarteak dira. Norenak ziren baiño garrantzi aundiagoa du nire jardunean edukiak. Ona emen, leen aipatu dudana zurrumbilloaren otsa:

*1988an. Egunkari batean azaldua: “ORIXE TAPATU BEHAR DA. “Gonadunak beraiek baino sotanaztuagoa ia. Tristeia da gure egunetan maisutzat aitortu beharra ez jakin jakintsuak idolatratzen zuen hura. Tristeia da jendea inozoaren inozoz fededun gorde nahi izatea, nor bera Jainkoak bikaindutako kristau sentituz. Tristeia bi kutun bakarrik zituen mutilzahar bat, Jainkoa eta euskara. E.a. Eta tapatzea ez da abaztea eta bazterrera uztea, merezimenduz eta lanez gáinditzea eta ontzea baizik.....”*

Eta nik diot: Nola eta nortzuk neurtu “merezimendua”?



Eta ordun sortutako giroa, obeto girotzeko, ona emen beste zati batzuk. Liburu baten edukian. Oraingoan ere, norena baiño edukiari garrantzi geiago emango diot, nire lan apal onetan.

*“Don Jose de Artetxe aita, linboan aizena, ahaztua biz hire izena, ez betorkigu hire erreinua (errepubliko bat nahi baitugu) egin bedi hire borondatea( eta ez hire semearena, ez Basarrirena, ez Lekuonarena,) linboan bezala lurpean ere.....”*

Gure egunoroko otarraina eziezaguk gaur ere ken, eziezaguk geure zorrik pagarazi aberatsak ez titezen aberatsago eta probreok eskaitzezen probreago, eta Don Jose Artetxe hire semeari tentazioan erorten utz iezok (euskaldun mutilak haren eskribuez asperturik baikaude). Baina libra gaitzak dialektok mordoiloetatik, zeren hireak baitira Don Jose de Artetxe, Basarri eta Lekuona”

Eta aurreko iritzi oriek ez bezalakoa, ustez denontzat jakintsurik aundieneko baten iritzia. Izkuntzalaria eta ainbat alorretan jakintsua. Ez dago geiago esan bearrik, denok jakiñaren gaiñean gaude nor izan zen Koldo Mitxelena. Ona bere” Idazlan Hautatuak” liburutik jaso duguna:

*“ORIXEREN ERIOTZEAN.*

*Orixe ere joan zaigu. Zaratarik gabe, har izkutuaren antzerara, azpilanean ari den denbora ibeskorrak erauzi du gure artetik udaren erdian. Guztiok- ez jakinean edo jakinaren gainean- irakasle genduen galdu dugu guk eta zeukan haberik sendoenetariko bat galdu du euskarak. Euskal literaturaren oroitzapenak lurpean diraueino ez da noski itzaliko aren izena eta omena”*

“Poesi soziala ”izenekoa sortu zen garai artan, bazirudien leengoa apurtu bearra zegoela. Leengoak ez zuela garai berrietan ezertarako balio. Eta euskerari buruz, berdin..... “Arrazoi biologikoak” gainditu ziren, gazteen jokabideen alde. On Manuel Lekuona, gure “Lekuona Zaarra” Euskaltzainburu oi “izendatu” zuten.

Orain “arrazoi biologikoa” dela eta, zer da kontua? Bada, garai aietako gazteek, denok bezala urtetan aurrera, eta bereari eusten jarraitzen dute. Ondo dago, orrela bear, besterena ukatu gabe ordea. Eta ainbat gutxiago “tapatu”.

Erri onen kultura osatzea eta izkuntza lantzea, guztion lana ez ote da.? Eta lan orretan dabilenari, airtortzea eta eskertzea, eta kultura orri, ez dagokion gauzak kontuan izan gabe. Eta denok egindako lanak, bateratuz, bere osotasunean, ez ote lezakete osatu Euskalerrria?


## 2. ATALA.

### Orixek idatzitakoetatik.

Trena aurrera dijoa. Eta gauza oriek direla eta, nire ausnarketa ere bai.

Eta ildo orretatik, Orixek idatzitakoetatik zuzenezko aipamena:

“ORIXE-REN EUSKAL MUNDUA EZ ZELA BENETAKOA, SOZIAL ARAZOA EZ ZUELA KONTUAN ARTU”-Zioten batzuk.



Eta gaurko gazte orrek ere, gauza bera esan dit.

*Eta Orixek berriz, "Euskaldunak" liburuaren itzaurrean onela dio:*

*"Au izan dut leen asmo: Nik moldatu dudan poema au, ERRLAK MOL DATUA litzan gisan egitea; nik egin ditudan bertsu auek, ERRLAK egin zezaken gisan egitea. Orretan ez duzu gertakizun onetan maratila askorik billatu bear, ez naas pilla andirik bereizi bear, ZENBAIT NOBELA TXARREAN BEZALA. Ez da eriotzarik eta beste gauza lazgarririk daramanetan bezala. ERRI BAT BERE OIKO LANBIDETAN, JOLASE TAN, IPUINETAN, BIZIAN, ERIOTZAN AGERTU NAI NIZUKE, GAUZAK ESKUARKI EDO KOMUNZKI GERTA OI DIRENEZ".....*

Beste zati bat:

*"Istoria bera ere, oraintsu arte gerra kontua besterik ez da izan. Egun, ordea, erri baten agirikoak oro sartzen ditugu istorian. Baita nik ere poema deritzadan onetan, istori zearo baitut egin, guzia toki batean eta mende batean, egina litzan gisan." (..) MENDE ZAARRIK ERE ASMATU BEARRIK EZ; BIZIMODU ZAAR ONEN GEIENAREN LEKUKO NERAU IZAN BAIT NAIZ(..)" ERRIA DEN BEZALA AZALTZEN SALATU NAIZ. ZERTAKO NI ASMATZEN ASI ?" EUNETATIK LAUROGEITA AMABOST, GUTXIENIK, NEURE BEGIZ IKUSIAK, NEURE BELARRIZ ENTZUNAK, NIK JOSI ETA MOL DATUAK ORDEA, BATASUNA ARDEZATEN(..)"*

Gero onela jarraitzen du:

*"EUSKAL ERRI OSOA DUT KANTA GAI, EZ BIKO BAT EDO BESTE....."*

Eta onela asten du bere lana:

*"NAPARROA ZARREAN LARRAUNEN UITZI, BELAR GOXO TARTEAN EPER-KABI IDURI. BELARDIEN INGURUZ KABI ORREN ESI BASO MAITEA DAGO, IKAZKIN LANTEGI"*

Euskal erri osoa dio, eta bereziki, Uitzai aipatzen du. Badakigu, baserri giroa, berdiña zela beste inguruetan ere.

Eta orren arian:

### 3. ATALA.

#### Baserritarren iritziak.

Adibide txiki batzuk azalduko ditut, eta ez dira gaurko gertaerak, noski, baizik eta aspaldikoak, antza emango diozuenez.

"HIRU GIZON BAKARKA" Bitoriano Gandiagaren liburutik, Arantzazu inguruko gertakizuna aipatzen du:

*"Oraindik gogoratzen naiz Sorandietako Antoniok zer erantzun zuen bein. Ekarri nuen orietako izlari bat baserritarrei irtenbideak adierazten ibiltzen zen gazte bat. Piñuak, esnea, e.a. Antoniok ebaki zion alako batean: "Begira nik, baserrian bizi baiño naiago dot, Gomistegiko ateko txakurra izan"*

Beste au amaren errian entzundakoa, Arbizun-Naparroan: Ba omen zeuden eserita, gerra asi zeneko artan, erritar batzuk, eta alako batean egazkin otsa, eta batek esan omen zuen:

*"Eldu dituk, eldu dituk gureak"..... Eta beste aiton batek erantzun omen zion, mai gainean zegoen ogi puskari elduta: "Gureak, gureak,..... Nork dituk gureak? Au duk, au duk gurea!!! eskuan ogi puska erakusten zuelarik"*

Urtetan sartua, beraz zaartua zegoen aiton bati entzuna: Bere bizi guztia lanean leerturik eta mundu oneko azken era bere burua somatzen zuelarik, auxe esan zidan:

*"Bizi guztia lanean leerturik, eten gabe, makurtuta, esku batekin egin eta bestearekin jan. Eta ez zaitzu ezertxo ere gelditzen. Alde, alde emendik.....!!!" 1948ko Azaroa zen. Eta andik zazpi illabetera il zen, irurogeita emezortzi urte zituelarik. Nekazari. Artzain. Basagizon. Argin. Etxean lanabesen konpontzaille. Kamiozain. Azken onetan Naparroako Foru Aldundiarentzako, eta bere azken urteetan ustekabeen zaarsaria jasotzen asi zen ortik, eta bere biziko poza artu zuen. Ori eta onen aurretik aipatutako "ogi puskarrena", gizon bera izan ziren. Nire aitona Joxe Antonio Goñi, Amaren aita. (G.B.)*

Eta baserrietako nekazari geien-geienak, garai aitetan, ez ziren baserriaren jabe. Nik dakidan neurrian behintzat. Gipuzkoan eta Bizkaian. Txirritaren bertsoak "Nagusia eta maizterrenak" orixe adierazten dute.

Ea nola lotzen ditugun orain, aurrean azalduko "baserritarren iritziak", Orixek "Euskaldunak" liburuan azaltzen dituen batzuekin:



Ikazkiña goitik beera  
ardo dantzen emaitera;  
ortzuri zorrotz okela nai ark  
listua du sabelera.

Bababeltz-orde zikirokia  
oso bakan deza aukera.  
Atsaldea alai eman, afaldu  
basorakoan gurera,  
bata besteren urrena sartuz  
osatzen dute billera.

Berri ta kontu, ipui ta kanta,  
kolkoa dute betea:  
bakarrago da txondarrak zaitzen  
basoan talogillea.  
Aizeak barka duana,  
izotzak duke erasana.  
ale ta lasto onduak ditu  
denbora bailitz igana:  
ainbeste etsairen mendean dago  
nezariaren jana.

Txigortzen danean zitzi,  
artai-barrenak igurtzi;  
kipe naiz ezti, beatza atzetik  
xurgatu gabe ezin utzi.  
Nekazariak beste langillek  
Amen au ez du merezi.  
Etxean balitz eztirik,  
eota sardiña zaarrik,  
andienetik txikienera  
listua dario ortzetik,  
taloa lagun nork egin aiek  
bezain otordu goxorik.

**Amona an dator luzaro bage  
gari alea aztertzer,  
eskuan artu, irraran utzi  
argitzen zaio bekera.  
Gari ederra; gixen betea;  
zalkerik ez du;urrekera:  
Ogi zuria jateko aurten  
ba dugu beintzat aukera.**

Taloa, ogi zuria, aurten....., baba-beltza eta zopa saldatsua, bigarrenez. Ori zergatik? Salda utsarekin sabela ez betetzeagatik, aurretik, eta beraz, baba beltza geiago artu, orrek ematen bait zien indarra basogizonei.

Euskaldun baserritar aien bizimodua. Bizimodua apala. Ez zuten pentsatzen ere obetu zezaketenik. Gaur adiñeko antuste eta goi nairik gabe..... Eta bizibide orrean, bizipoza alarik ere. Eta garaiaren garaiakoa egiñez: Pestaburu. Artazurikera. Gaztaiñaro. Iruleak. Olentzaro. Iñauteri. Denok Bat. Axurtaro. Letari. Artajorra. Belarrekoan.

Eultzia. Eztaietan. Amonaren illetak. Eta bizimodu orretan an izaten ziren tarteko: Aizkolari apustua. Segar apustua. Korrika apustua.....

Garai bateko bizimodu apala, txiroa, Euskalerrian. Nekazariena. Artzaiñena. Basagizonena. Zer dela eta bestela ainbeste artzain euskaldun Ameriketara?

Eta kontutan izan Orixek, bere liburu au, 1935 bukatu zuela. Eta 1950ean argitaratu. Beraz aipatzen duen garaiak industria aurrekoa zen. Eta industria garatu zenean Gipuzkoan eta Bizkaian izan zen, soillik.

Eta "Orixe" Nikolas Ormaetxea jaunaren Naparroako UITZI eta nik aipatu dudana amaren erria, Naparroako ARBIZU-ren artean ez zegoen alderik bizimoduari zegokiolarik, garai aietan. Eta oiturak, fedea, gizalegea, berdin -berdiñak ziren. Eta euskaldun peto-petoak eta lurrari josiak beren lanbidean.

#### 4. ATALA.

##### Ondorio batzuk

Orixe, Uitzin azia eta ezia izanik leenengo urtetan, umetan bizitutakoa oso barnean zeukan, guztiok bezala, eta neure uste

apalez, Orixek aipatutako munduan, baserri giro orretako jendea zuen, oso sartua bere baitan. Baserritar aiek ez zekiten inongo erderarik, eta euskera zuten barne-barnean. Euskeraz pentsatzen zuten, euskara soilik erabiltzen zuten, besterik ez bait zekiten. Eta euskera gaiñera, beren ama izkuntza izanik, naikoa zuten, ez zuten besterenik bear bere bizimoduan. Aukera geiago ere ez zuten izaten ordungo baserritarrak. Beraz, Orixek aipatzen dituen norki oriek euskaldunak ziren, bete-betean, eta izen ori aukeratzen du izenburutzat. Beste inori dagokiona ukatu nairik gabe, noski. Eta Uitzzi, garai bateko labe garaiko Barakaldo eta Sestaorekin naastea ez dut uste bidezkoa denik. Azken bi erri orietan adiña arazo eta neke, baserrian ere izan zitezkeen. Eta gaiñera, iritsi zen une bat, baserritarrak fabrikara lanean asi zirenekoa. Beste batzuk itsasora. Beraz obe bearrez. Baserrietan naiko lanak bait zituzten aurrera ateratzeko.....

Bestalde orduan euskera eskoletatik kanpo zegoen. Beste garai askotan bezala. Euskera etxean ez bazenuen ikasten, bada orduan esaten zen bezala “belarrimotxa” biurtuko ziñen. Orrela esango zizuten, beintzat, inolako intentzio txarrik gabe. Baserritar aiek, ez zuten aukerarik izan erdera ikasteko. Gaur egun, ordea, euskera Unibersidade maillaraiño iritsi zaigu, eta beste kontu batzuk dira.

Denboretan zear, bereizkuntza batzuk egitearren, euskaldun esateaz gain, euzkotar edo euskotar, erabiltzen asi ziren. Gero baskoa, eta zer esanik ez, vascongado. Eta azken aldian gure Araudia edo Estatutoa dela eta, “condición política de vasco.” Eta “vasco” ori “euskaldun” itzuli dute. Azken au eskubideei dagokiolarik, batez ere. Gure Orixe, ordea, ez zen katramilla orietan sartu noski. “Erri bat begien aurrean daukat” esaten zuen, euskalduna zena, eta ura aurkezten saiatu zen, irakurri besterik ez dugu berak idatzitakoa. Industria sartu aurretik, baserri giroa zen nagusi gure Euskalerrian. Gero badakigu, Euskalerriko zenbait lurraldeetan, erromatar, arabiar, e.a sartu zirela, eta dena ez zela berdin izan.

“UITZI LIBURUA” ere deitu izan zaio, Orixeren “EUSKALDUNAK” deituriko liburu eder orri. Ez dagoela, Euskalerrri osoa arturik? Entzuna dugunez, Orixe aundia, lotsaturik, edo, ibilli omen zen. poema aundi au, argitara nai ez da. Jakintsu aundien ezaugarrietako bat: apaltasuna. Lizardik bultzarazi omen zuen azkenean argitaratzera. Berak aipatutakoa, baserri giroari zegokion. Baiña ortik or azaltzen den mundua, benetako Euskalerrria ez dela esatera.... Ez ote, dago or azpi esan naia ? Eta Orixek aipatzen dituen baserritar aiek, euskera besterik ez zuten menderatzen.....Beraz, ori ez zela benetako Euskalerrria esateak.....





“Gizarte arazoa”, delako “poesi sozial” orretan aipaturikoa. Garai aietan gaur adiña aurrerabiderik, tresnarik eta lanabesik ez zegoen, baserrietan. Eta erri gunetik urrutiko baserrietara kamiñorik ere ez, esnea saltzeko gaurko erraztasunik ere ez. Etekin motza, oso motza.....

Ori “ posesi soziala” baiño geixeago ez ote da? Or ez dago tarterik lirika ameslari batentzat..... Eta emen ere Orixe aundia, maixu, berriz diot, onela asten du bere lana:

“Au izan dut leen asmo: Nik moldatu dudan poema au, ERRIAK MOLDATUA litzan gisan egitea; nik egin ditudan bertsu aukerak, ERRIAK egin zezaketen gisan egitea”

Ikus gaiñera:” Baserritar batzuen iritziak” 3.atalean.

## 5. AMAIERA

Nire gogoeta onetan, ezin utzi Orixeri buruz geien zekien beste jakintsu bat, bere illoba izan zena, Joxemari Aranalde.(G.B.). Apaiz jakintsu eta euskaltzale aparta izan zen. Bertsoaritzaz ere asko landu eta aztertu zuen. Ark esandako batzuk, egunkari batean. Ona emen:

*Orixeren kistautasuna ulertzeko sekretua, Uitziko amona Mari Asunengan dago. Amona errezoan eta estatisean ezagutu zuen, zortzi urte zituela.*

Azken urteak, eta gaixorik, illobaren babesean eraman zituen

Gazetariak: “Zer eman zizun trukean Orixe?” *Euskeraren bidez eta ark euskeraz erabili zituen gaien bidez, euskaldun baten bihotzari kristau erligioak eman diezaiokeen edertasunik ederrena”*

Orixe intelektual andia izan zen. Ez duzu aurkituko beste inon Orixe landu zituen gaietan bezalako zehaztasun, sakontasun eta edertasunik. Adibidez, filosofiaren konzeptu metafisikoak inork ez ditu landu Orixe bezala.

Erabili zuen euskera mailla aparta izan zen. Ain goi maillakoa izanik!! Bere illoba Joxemari Arandalderi ere entzuna: “*Orixerenaz ondo jabetzeko, euskeraz, umetandik etxean ondo ikasitakoa bear*”


Gizon jakintsuak, izkuntzalariak, teologoak, e.a. eskaiñiak dira ainbat lan eta liburu Orixerena aztertzen. Nire lan apal au berriz, erri xumearengandik datorren biozkadat besterik ez duzu, irakurle.

Trena iritxi zait nire geltokiraiño, eta aldi berean, emen bukatzen da nire gogoeta.

Eta orrela, naikoa izanik, aipa dezadan amaieran, Nicolas Ormaetxea jaunak, “Orixe”, Joxemari Aranalde, (G.B.) bere illobaren besoak laguntzen ziotelarik eman zuela azken arnasa.

Gaiñontzeko ondorioak zuretzat irakurle.....

**Joxemari Murua Goñi**





## 2014'ko agoztuaren 1'an

1-

*Eguzkia ez bada  
gurekin aztua,  
jendea ikusiko da  
larrua beztua:  
badago nora joana  
da nun jolastua,  
emen dira oporrak  
eta agoztua.*

2-

*Urte guztian il au  
noiz etorriko zai,  
mundu zear joateko  
arriba ta anai;  
gogoko izan arren  
joatea noranai,  
denbora ona da baiña  
dirua ere bai.*

3-

*Askotan eskaxian  
gabiltza dirutik,  
eta ori ez baita  
etortzen zerutik;  
naiz amets ederrak  
datozten burutik,  
gastatutzen zailla da  
ez dagon lekutik.*

4-

*Nai ta eziña sarri  
da mundu onetan,  
gazte asko ez dira  
biziko brometan:  
saia bearra emen  
zerbait dagonetan,  
askok laguntza dute  
aiton-amonetan.*



5-

*Aiton-amonak dute  
zardade saria,  
askok pasa ondoren  
bizitza larria;  
etzuten ezagutu  
gaurko miraria,  
oporrak urri ziran,  
lana ugaria.*

6-

*Orain ainbat ondoren  
dira ezagunak,  
ugaldu konpianzik  
gabeko lagunak:  
danontzat datoz emen  
naigabe jardunak,  
lapur bildurrez gabiltz  
zerbait daukagunak.*

7-

*Okerra gerta leike  
zar eta gaztetan,  
lasai ezin ibilli  
nai dan ainbestetan;  
etzera konturatzen  
seitatik bostetan,  
eskarmentua dun bat  
ari da izketan.*

8-

*Ezagutzen ez danak  
kontu ta abarra,  
pentsa paltsoa dala  
bere irriparra;  
begia argi dute  
bizkor atzaparra,  
orra zure poz dana  
biurtu negarra.*



9-

*Beste gaitz bat oporrak  
berekindutena,  
zauria ta odola  
errez litekena:  
azken ostiko ori  
degu askorena,  
nola jokatu esan  
bear ligukena.*

10-

*Automobil eta tren,  
asko egazkiñez,  
ondoren zer datorren  
iñorrek jakiñ ez;  
askotan bizi arren  
sinistu eziñez,  
ziartuna omen da  
lañoaren gaiñez.*

11-

*Opor zaletasunak  
zaizkigu ugaldtu,  
gaurko bizimoduak  
merezi ez al du?  
Nora joan norberak  
ikusit bear du,  
gure zentzurik beintzat  
ez dezagun galdu.*

12-



*Geiegi arrotzea  
ez da komeniko,  
ortatik ezer onik  
ez da etorriko;  
elizara joan eta  
jarri belauniko,  
otoitzak gauza txarrik  
ez du ekarriko.*

*Txomin Garmendia*



# Euskaldun barrientzat ikasten

## Zazpi utsak



### IPUIN SARIKETA

Mesedez bialdu CD, disketea edo internet bidez: [info.euskerazaleak@gmail.com](mailto:info.euskerazaleak@gmail.com)

EUSKERAZALEAK ALKARTEAK, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

- Ipuinak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZAK argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
- Ipuinak asmaturikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
- Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER-en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.
- Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEAren etxean (Bilbaoko Colon de Larreategi, 14, 2<sup>a</sup> eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer-en agertuko da, Urtarrillean.
- Sariak bost izango dira: 

1. <sup>a</sup>	300 euro	4. <sup>a</sup>	120 euro
2. <sup>a</sup>	240 euro	5. <sup>a</sup>	60 euro
3. <sup>a</sup>	180 euro		
- Ipuinak izen ordegaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.
- Epea azillaren azkenera arte.

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia

EUSKERAZALEAK 

### ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar .....

..... kalean (auzoan..... zenbakian

..... errian, ..... errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko ..... diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,

an daukadan     zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN "ZER". Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

Euskerazaleak. Colon de Larreategi, 14-2. Tel. 94 423 53 22. Bilbao.

**Olentzero joan zaigu  
mendiran lanera  
intentzioarekin  
ikatz egitera.  
Aditu duenian  
Jesus jaio dela  
lasterka etorri da  
berri ona ematera.**

**Orra! Orra!  
Gure Olentzero!  
Pipa ortzetan duela  
eserita dago  
kapoiak ere baditu  
arraultzatxuakin  
biar meriendatzeko  
botila ardoakin.**

**Inolaz ezin dugu  
Olentzero ase  
bakarrik jan dizkigu  
amar txerri gazte.  
Saieski ta solomo  
makina bat este  
Jesus jaio da eta  
alaitu zaitezte.**

**Orra! Orra!...**

